



Pil-pilean

TOKI
URRIA

Soraluzeko hilabetekaria
2021eko urria · 379 alea

25 urte zuekin



IBAI KORTABARRIA

ZEZENZALETASUNAREN LILURAN



PIL-PILEAN 379

2021ko urria

Azaleko argazkiaren egilea:

Paski (torivicio.com).

Aurkibidea

- 4 **Elkarrizketa** Luis Gomez abadea
 - 6 **Begira** Skate parkea
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 14 **Argazki bidez** Gaztañerre azoka
 - 16 **Plazan bazan** Umeendako jolasak
 - 20 **Erreportajea** Ibai Kortabarria
 - 26 **Kirola** Pelotariak eta hockey jokalariek
 - 27 **Kultura** Blues Hotsak 2021
 - 30 **Pil-pileanen artxibotik**
 - 34 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
- 3 **Neuretik** Roman Olaizola *Nire olinpoa*
 - 18 **Gutunak** Ander Elizburu, Cris Jacas
Mateu eta Izaro Gerrikagoitia
Sarasua *Ikastetxeko patioa zabalik*
 - 18 **Komiki tira**
 - 19 **Hausnarketa** Eskolako patioa itxita
 - 19 **Puntua** Garazi Catalan Arenaza
Normaltasuna?



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Nire olinpoa



ROMAN OLAIZOLA

Orain dela egun batzuk, aldizkari batzuei begira eta etxeko egongelan argazki batzuk ipintzen niharduela, tristura apur batekin ikusi nituen falta diren hainbat lagunen argazkiak, gure memorian eta argazkietan egoten jarraitzen duten arren. Ezinbestean, pentsatzen hasi nintzen hainbatek -nire ustez, oso modu generalistan- kirola deitzen dioten jarduera multzo horren inguruan.

Errespetu guztiarekin eta inor mintzeko asmorik barik -batez ere, objektu esferikoak baliatuta praktikatzeko diren kirolen kasuan-, ez dira gauza bera partida bat galtzeaz edo irabazteaz gain beste ezer jokoan ez duten praktikak -norbere trebeziak, teknikak, taktikak... eta akaso lesioen bat izan ezik-, edo nik "erlijio" moduan izendatzea nahiago dudana beste praktika horiek, zeinetan praktikatzeko dituenak itsuki sinetsi behar duen egiten diharduen horretan, bertan, literalki bizia jokatzeko duelako.

Michael Jordan, Serena Williams edo Leo Messi bezin ezaguna den jendearengatik errespetua sentitzen dut, baina errespetuaz gainera, mirespen handia sentitzen dut horren ezagunak ez diren Alison Hargreaves eta Dean Potter alpinistengatik, Axi Muniain surflariarengatik edo Shane McConkey eskiazailearengatik. Axi da horietan bizirik dagoen bakarra.

Aitortu behar dut nire burua oso ausartzat ez dudana arren, bereziki jartzen nauten 'erlijioak' azken horiek direla. Surfa, motoziklismoa, alpinismoa, espelologia, buzea, muturreko eskia... bizi duten tribuak dira gehien errespetatzen ditudanak, emaitza horiek lortzeko arriskatu, benetan arriskatu, beharra dagoelako. Inork ez du surfeatzeko 15 metroko olatu bat itsaso zakarrean; igotzen mendi erraldoi bat edo 1000 metroko horma babesgabe at; jeisten izotzeko eta elurrezko harresi bat, edo etzaten motor bat bustitako bihurtzeko batean arriskatu barik azala baino zeozer gehiago.

Ezin dugu ahaztu pertsona horiek, euren pasioa mugaraino errotan duten horiek, dena eta gehiago eman eta hainbatetan zirrara eragiten diguten horiek, gizakiaren gaitasun fisiko eta mentalen gaineko mugen ezagutzari buruzko ekarpena ere egiten dutela; baita itsas korronteei eta sakontasunei buruzkoa ere, altuera handiei, glaziarrei edo lurrazpiko amildegien ingurukoa. Ekarpene horiek laguntzen du guri buruzko eta gure munduko leku ezezagunei buruzko ezagutza handitzen baina zalantza daukat hori ondo aprobetxatzeko gauza izango ote garen.

Horregatik, argazki horiek eta aldizkari horiek begiratzen ditudanean, ez dut besterik sentitzen miresmen sakon bat baino, sentitzen baitut gure arteko alerik onenak ikusten ari naizela.

MIRESMEN HANDIA SENTITZEN DUT AXI MUNIAIN SURFLARIARENGATIK

“Ni izango naiz hemen bizi izan den azken apaiza”

TESTUA ETA ARGAZKIA: UBANE MADERA ZANGITU

Luis Gomez (Narbaixena baserria, Zubillaga auzoa, 1966) txantxikuarrak Soraluzeko parroko izateari laga zion urriaren 17an, 2002ko pilarika egunetik zeregin hori betetzen ibili ondoren. Orain, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan beteko du parroko lana.

Pozik zaude bazoazelako?

Eta bat bukatu da. Gainera, datorren urtean eraldaketa osoa dator.

Zein eraldaketa?

Ni izango naiz hemen bizi izan den azken apaiza. Jon Eibarren biziko da. Bukatu da orain arteko funtzionamendua. Nik Soraluzeko parrokia prestatu dut parroko berriak bestelako parrokia batzuekin batera lan egiteko aukera izan dezan.

Zein parrokiarekin?

Oraindik ez dakigu. Gure artzizprestazgoa aldatu egin da. Lehen hiru ziren: Bergara (Bergara, Antzuola eta Elgeta), Debagoiena (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga) eta Debabarrena. Gero bi izan ziren, Bergara sartu baitzen Debagoiengan. Eta orain Debarroa dena da bat, Leintz Gatzagatik Mutrikuraino.

Zer gertatuko da hemengo apaiz etxearekin?

Ez da inor biziko, baina parrokiaren etxea da eta jarraituko da katekesia, Caritas eta bestelakoak egiten, orain arte moduan.

Zergatik eraldaketa hau?

Gauza asko aldatu dira. Ez dago lehengo apaiz kopurua, haien betebeharrak aldatu egin dira... Apaiza ospakizunen koordinatzaile-eta izango da, baina apaizak egiten dituen lan asko laikoek egiten dituzte.

Adibidez?

Pastoraltzaren arlo guztiak: Caritas, katekesia... Elizkizunean ere, liturgian 4-5 pertsona egoten dira gauzak egiten, ez ni bakarrik. Gauzak egiten dituztenei erantzukizuna emanez gero, haiek ere pozik. Bestela zer, batek lan egin eta erabakiak beste batek? Lana egiten duenak ere izan behar du erabakiak hartzeko eskubidea, bestela, ederra! Bestalde, parrokiako funtzionamendua ere

eraberritu beharra dago. Ez da gauza bera herri bakoitzeko parroko bat egotea edo parroko batek hainbat parrokiaren ardura hartzea.

Horrek elizkizun nagusiei eragingo die?

Ez. COVIDa dela-eta, domeketako meza eta hileta-elizkizunak bakarrik egiten dira. Ondorioz, diru-sarrerak ere gutxitu egin dira, gehienak zepillotik baitatoz. Horrek dakar ezinezko izatea herri batendako parroko bakarra.

Pozik zoaz leku berrira?

Hasieran haserre nengoen, baina hemen egindakoarekin harro nago, eginda dago nik egin beharrekoa. Orain, hangora moldatu egin beharko naiz, hemen egin nuen moduan.

Zer oroitzapen eramango duzu hemendik?

Bi etapa izan ditut. Obrak egin arte eta ondoren. Obrak egin arte, Soraluzek bizitza gehiago zuen eta nik osasun hobea. Gero obrak hasi ziren eta nire bihotza kezaka hasi zen. Pentsa, irakurtzean, esaldi batetik bestera airea hartu behar izaten nuen, jarraitu ahal izateko. Ondorioz, gauza asko laga behar izan nituen. Kuadrillarekin ibiltzeari ere bai. 15 urteren ondoren, obren presioa bukatuta, gauzak itxuroso egiteko beste errekuperatu naiz. Nik beti diot: asko eman dut, baina asko jaso dut. Gaizki egon naizenean egin da egin dena laguntza handia jaso dudalako. Eta gaizki egon ez naizenean ere bai. Hori nahiko nuke azpimarratu, parroko lana ez dela abadearena bakarrik, baizik eta da parrokia osoarena. Hemen egindako gauzak ezingo nituzke eta ezin dira egin laguntza barik. Apaiza prestatuago dago, azken ardura dauka... baina horrek ez du esan nahi berak egin eta desegin ahal duela dena bere kapritxora.

Hemengoa moduko San Blas egun gutxi egongo dira...

Esaten zidaten: ikusiko duzu hau desberdina dela eta benetan, ez dut ikusi beste parrokiatan halako fenomenorik... Eta kritikak! Ze norbait ez baduzu bustitzen, segituan dio: bedeinkatu barik daukat! Urak ukitu egin behar du! Hisopoarekin goraino botatzen nuen ura eta goitik behera bustita bukatzen nuen.



Umeen eta gazteen topaleku berria

ARGAZKIA ETA TESTUA: UBANE MADERA ZANGITU

Leku ilun eta hutsala izatetik, apenas hiru hilabeteen, umez eta gaztez betetako leku alaia izatera pasa da kiroldegi parean egokitutako Skate Gunea. Neska zein mutil izan, patinetea edo skateboard-a eduki, berdina da Skate Guneako arrapaletan gora eta behera ibiltzeko, norbere trebeziak erakutsi eta besteek ikusteko eta, finean, arratsalde pasa ederra elkarrekin egiteko. Gainera, kirola eginez. Uztailean inauguratu zuten Skate Gunea, gazteen eskariz gauzatu du Udalak. Dagoeneko herriko gune erabilienetako bat bilakatu da.







Azokagunea 2015eko edizioan. ARTXIBOA.

Azoka normaltasunez

Azokaz gain, herri-babajana, erromeria eta bestelako ekimen osagarriak ere egingo dira.

Urtebeteko geldialdiaren ostean, aurten normaltasunez ospatuko da berriz Gaztañerre Azoka, azaroaren 13an. Aurtengoa XXV. edizioa izango da eta Debemenek jakinarazi duenez, azokan, guztira, 32

postu izango dira: 7 barazkienak, 1 sendabelarrena, 1 eztiarena, 1 gaztarena, 11 ganaduenak eta 11 artisauenak.

Azokako postuez gain, bestelako ohiko ekimen osagarriak ere egingo dira

Erregetxean: Urratseko dantzari txikien saioa, bertsolarien saioa (Unai Agirre eta Agin Laburu), baserritarrei omenaldia (Arizaga-Etxetxo baserriko Juana Ibabe Errasti -87 urte- eta Txurruka baserriko Begoña Andoaga Aizpiri -87 urte-), saiheski pintxoak (Sanandrestarren eskutik) eta taloak (Pil-pileanen eskutik)... Karpan, berriz, arratsaldean herri-babajana egingo da (dagoeneko tiketak salgai daude Iratxon) eta iluntzean, erromeria Fan&Go taldeak girotuta; hori bai, osasun neurriak direla eta, aurten ez dute barra zerbitzurik eskainiko karpan. Azkenik, gauean, Revolutionary Love DJ jaia ere egingo dute Gaztetxean.

Baserritarren bazkaria astebetera

Aurten, azokako baserritar eta gainerako parte hartzaileekin egin ohi den bazkaria astebete beranduago egingo dute, azaroaren 20an, Txurruka jatetxean. Bertan, Larreategi anaiak trikitalariekin batera, Aitor Mendiluze eta Nerea Elustondo bertsolariek ere parte hartuko dute.

Korta baserria berreraikitzen laguntzeko ekimena

San Andres elkarteko kideen ekimenez, Gaztañerre azoka egunaren bueltan, diru-bilketa abiatuko dute Korta baserria berreraikitzen laguntzeko. Horretarako, errifak salduko dituzte 2 eurotan, Txurruka jatetxean egingo den lau lagunendako bazkaria zozkatuta. Zehaztu dutenez, errifa saritua Errege eguneko El



Hasita daude baserria berreraikitzen.

Niñoko zozketako zenbaki sarituaren azken lau digituek erabakiko dute.

Berreraikitzeko lanak hasita

2019ko urriaren 3an, San Andres auzoko Korta baserriak su hartu zuen eta ia osorik erre zen. Duela hilabete batzuk, baserriaren jabeek erabaki dute baserria berreraikitzea eta dagoeneko hasita daude lanean. Tartean, auzotar talde batek ere jardun du auzolanean.



Erakundeetako ordezkariak proiektu pilotuan diharduen taldearekin, gaztelekuan.



Kalebarrengo lokala erakusten.

Gizarteratzea eta laneratzea

Gipuzkoako Foru Aldundiko, Zabaltzen-Sartu Kooperatibako eta Udaleko ordezkariak bertatik bertara ezagutu zuten Soroluzen iaiztik abian dagoen *Emakumeak, talentuak eta aukerak* proiektu pilotua

Atzo, eguena, Soroluzen izan ziren erakundeetako ordezkariak Gaztelekuan izan ziren lehenengo, hantxe egiten baitituzte bazterkeria egoeran dauden emakumeak ahalduzko eta alfabetatzeko saioak. 20 emakume inguruk dihardute parte hartzen eta bertatik bertara kontaktu zieten agintariei, besteak beste, iaz "oso ondo" irten zela egitasmoa, euren osoko onuragarria eta lagungarria dela, parte-hartzea handitu egin dela eta aho batez eskatu zieten egitasmoari jarraipena emateko. Diputazioko ordezkariak, berriz, han bertan jakinarazi zuten 2022an ere proiektuak aurrera jarraituko duela.

Horren ondoren, HHiko lokaletan (EPA) eskaintzen den aholkularitza zerbitzua bisitatu zuten, proiektu pilotuaren hirugarren hanka. Esplikatu zuten zerbitzua asko erabiltzen dela eta Lanbideri, eta, oro har, Internet bidez egin beharreko prozedurei buruzko aholkularitza eskaintzen dutela.

Bisita bukatzeko, alkateak Kalebarrenera eraman zituen. Han, Iker Aldazabalek jakinarazi zuten, Udalak Kalebarren 8ko bi solairutako lokala bereganatu duela 5.000 eurorengatik. Udalak nahi du gaztelekuan eta EPAn eskaintzen diren zerbitzuak etorkizunean Kalebarrenen kokatzea, "gune zentralizatu eta irisgarri batean, herritarrek zerbitzu duina izan

dezaten". Alkateak gaineratu zuen helburua, baita ere, Lanbideren bitartez espazio hori homologatzea dela, gaur egun Eibarren edo Elgoibarren egiten dituzten ikastaroak herrian bertan egin ahal izateko. Jakinarazi zuen 450.000 eurotako proiektua aurkeztu dutela Diputazioko dirulaguntzetara.

Ordezkaritza zabala

Bisitan, Markel Olano diputatu nagusia, Ekonomia Sustapeneko diputatu Javier Larrañaga, Proiektu Estrategikoetako zuzendari Unai Andueza, Zabaltzen-Sartuko arduradun Marta Saenz, Iker Aldazabal alkatea, Patricia Borinaga alkate ordea eta Maite Quintanilla eta Abel Olaizola zinegotziak izan ziren, besteak beste.

Diputatu nagusiak Soroluzeko proiektuaren garrantzia azpimarratu zuten: "Bi elementu oso inportante bateratzen ditu, batetik, bazterkeria arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta lan duin baterako ibilbidea bermatzeko bidea eta, bestetik, emakumeen profila. Gizarteratze horretan emakumeek esfortzu berezi bat behar dute erakundeengandik".



Eskualdeko alkateak eta udaletako eta Debegesako ordezkariak aurkezpenean.

Energiari buruz kontsultak online

Oraingoz, partikularrek baino enpresa gehiagok egin dituzte kontsultak Debabarreneko Energia Bulego Birtualean

Denetariko kontsultak ari dira jasotzen urriaren erdialdean abiarazi zuten Debabarreneko Energia Bulego Birtualean. Zerbitzua, batik bat, partikularrei zuzendutakoa da. Baina enpresei zuzendutako

atala ere badu eta enpresak dira, oraingoz, kontsulta gehien egin dituztenak, Debegesatik esandakoaren arabera. "Enpresen kasuan, kalkulua egiten zaie, adibidez, zenbat eguzki plaka jarri beharko

lituzketen eta zenbateko inbertsioa egin beharko luketen", esplikatu du Debegesako Komunikazio arduradun Maria Otamendik.

Argindar fakturari buruz ere bai Partikularren kasuan, berriz, panel fotovoltaikoei, termikoei zein geotermiari buruzko informazioa eskuratu ahal da. Etxeko birgaitze obrei buruz kontsultatu ahal da, adibidez, igogailua instalatzeari, teilatuak birgaitzeari edo berogailuen instalazioari zein fatxadetako lanei buruz.

Horrez gain, norbere etxeko eraginkortasun energetikoaren inguruko kontsultak egin daitezke -etxetresna elektrikoei, berokuntzari, argiztapenari... buruz-. Baita argindarraren fakturari buruz ere, hura optimizatzen aholkularitza zerbitzua eskuratzeko eta erreklamazioak egiteko aukera barne.

Kontsultak, gehienez ere, hamar egun baliodontan erantzun dituzte, idatziz. Laguntza behar izanez gero: 943 82 01 10.

Oroitzapenerako argazkia

Luis Gomez parroko oñatiarraren agur mezaren ondoren (urriak 17), talde argazkia atera zuten parrokiako aldarean azken 19 urteotan abadearekin batera parrokia osatu dutenek. Luis Gomez eta Jon Loiola erlijiosoekin batera azaltzen dira parrokiaren zereginetan jarduten duten laikoak.





Seung Woo Han GOLeko gerentea eta Bahk Sahng-hoon GOL enpresan, Sorluzen.

"Oso jarrera arduratsua dute lanarekiko"

SEUNG WOO HAN GOL ENPRESAKO KUDEATZAILEA
Hego Koreako enbaxadoreak GOL enpresa bisitatu zuela-eta, enpresaren gaineko xehetasunak kontatu ditu kudeatzaileak

Irailaren amaieran, bisita garrantzitsua izan zuten Sorluzeko GOL enpresan, Hego Koreako Errepublikako enbaxadore Bahk Sahng-hoon lantegia bisitatzeko izan baitzen. Enbaxadako idazkari Yoon Il Woong-rekin eta Hego Koreako gobernuaren KOTRA bulego komertzialeko Ahn Youn Ju zuzendari nagusiarekin batera bertaratu zen enbaxadorea. **Hemen ez da oso ohikoa enbaxadore batek bere herrialdeak atzerrian dituen fabrikak bisitatzeko. Hego Korean ohikoak dira halakoak?**

Korean, gobernuko goi kargudunek sarritan bisitatzen dituzte atzerrian ahaleginean ari diren Koreako enpresak, horiei bultzada emateko. **Zenbatean behin etortzen da?** Enbaxadoreak herrialde batean duen betebeharra hiru urtekoa da eta denbora horretan, gutxienez, behin bisitatu zuten. **Zer erakutsi zitzaion?** Enpresaren inguruko informazioa eman zitzaion aurkezpen baten bidez eta ekoizpen instalazioak ikusteko lantegiaren bisita bat egin genuen.

Zer iruditu zitzaion?

Bere ustetan, korear konpainiarentzat Espainiara salto egitea izan zen arrakasta kasurik desiragarriena eta GOLeko langile guztien talde lan harmoniatsua balioetsi zuen.

Urte batzuk daramatzazue

Soraluzen. Zelan baloratzen duzu esperientzia?

Langile guztiek oso jarrera arduratsua dute euren lanarekiko. Enpresarekiko atxikimendu sendoa eta batasunaren indarra sentituko nituen. Horregatik, uste dut nire betebeharra lantoki hau langileek denbora luzez pozik lan egin dezaketean leku bat izatea dela. Pertsonalki, ez dut zailtasun handirik, baina espero dut gaztelaniaz ondo hitz egitea, ez da erraza ordea.

Halako elkarlan gehiago posible ikusten duzu?

Koreak eta Espainiak antzekotasun ugari dituzte teknologiarik, eskulanari eta sistemen azpiegiturari dagokienez. GSMk eta GOLek Espainiako eta Koreako konpainien indarguneetan eta ezaugarrietan sakondu dute eta bien gaitasunak indartu dituzte alderdi kulturalak edo bestelakoak osatzeko. Aukera bikaina izango da GOLentzat mundu mailan lehiakorra den Koreako automobilen baterien industrian eta horrekin lotutako enpresetan inbertsioak egiten badituzte eta Espainiara salto egiten badute.

"GOL-EKO LANGILE GUZTIEN TALDELAN HARMONIATSUA BALIOETSI ZUEN ENBAXADOREAK"



Estazio 2ko esparrua ari dira aztertzen saltokiaren balizko kokaleku izateko.

Eroski zabaltzeko aukera aztergai

Estazio kaleko garaje esparrua ari dira aztertzen balizko kokagune modura baina oraindik ez dute behin betiko erabakirik hartu

Eroski kooperatibak denda bat zabaltzeko lizentzia tramitatzeko eskaera egin zion Soraluzeko Udalari, uda aurretik. Udalak tramitatu du lizentzia eta bete beharreko baldintzak ezarri dizkio kooperatibari, besteak beste, proiektua aurkeztea; hori ere egin du Eroskik.

Erabakia hartzeke

Eroski kooperatiban gaiari buruz galdetuta, berriz, esan dute hartzeke dutela behin betiko erabakia. Hau da, oraindik ezin da ziurtatu Soraluzen denda zabalduko dutenik. Xehetasunak lotzen ari dira eta haien arabera erabakiko dute proiektuarekin aurrera egin ala ez.

Frankizia

Pil-pilean komunikabideak eskuratutako informazioaren

arabera, Mondragon Taldeko kooperatiba Soraluzen Eroski City bat zabaltzeko aukera aztertzen ari da. Zehazki, Estazio kaleko 2. zenbakiko garaje esparrua aztertzen ari dira balizko kokagune modura. Bestelako ezaugarrien artean, "tokian tokiko" zerbitzua lehenesten dute Eroski City motako saltokietan, "produktu freskoak dituzten elikagaidendak dira, eta bezeroarentzako arretan, prezio lehiakorretan eta egunero kontsumitzen diren produktuetan" oinarritzen dituzte salmentak. Eroski City saltokiak astelehenetik zapatara (biak barne) zabaltzen dira, goizetik iluntzera arte, eten barik, eta frankizia modura funtzionatzen dute.

Estatuan 500 frankizia baino gehiago ditu Eroski Taldeak.

Adinekoen sexualitate tailerra

Azaroan, adinekoen sexualitatearen gaineko tailerra egingo dute Esperientzia Gelaren eskutik. Bi saio izango dira, Tolarekua aretoan. Lehena, hitzaldia, azaroaren 2an. Bigarrena, berriz, azaroaren 9an. Bigarrenean 15 lagunendako lekua dago, beraz, bertaratzeko izena eman behar da udaletxeko harreran, azaroaren 3an, 4an, 5ean edo 8an.

Gisatu lehiaketa eta bazkaria

Azaroaren 3an, okela gisatu lehiaketa egingo dute Itxaropena elkarteak. Izen-ematea zabalik dago, izena Itxaropenako iragarki taulan eman behar da. Lehiaketaren ondoren, lehiaketarako prestatutako gisatuarekin bazkaria egingo dute. Bazkarirako izena Itxaropenako tabernan eman behar da.

Kalistenia parkea Txurrukenen

Udalak adjudikatu ditu Txurrukenen kalistenia parkea eraikitzeko obrak. 17.460 euroko aurrekontuarekin, Agapito Urban Industries S.L. enpresak egingo ditu lanak. Besteak beste, Street Workout-eko elementuak izango ditu, baita gimnasia egitekoak ere. Horrez gain, parkeko jarlekuak zaharberritu egingo dituzte.



Hurbiltzen familia programan izena emateko epea zabalik dago azaroaren 15era arte.

Hurbiltzen hastear da

Hurbiltzen familia programan izena emateko epea zabalik dago azaroaren 15era arte.

Azaroan abiatuko da Hurbiltzen, kultura ezberdinetako familiak elkar ezagutu eta euskara hurreratzeari helburu duen programa. Dagoeneko eman dute izena lau familia euskaldunek eta

beste kultura bateko hiru familiak, baina oraindik lekua dago. Saiok hamabostean behin egingo dituzte, ordu eta erdiz, Pil-pileaneko Arrate Espilla aniztasun teknikariak gidatuta (609287739).

Bertako basoak salbuetsita

Urriko udalbatzarrean, Udalak aho batez onartu zuen 2022ko ordenantza fiskaletan bertako zuhaitz espezieak edota hazkunde motelekoak dituzten lursailak salbuestea hondasun higiezinaren zerga ordaintzetik.

Ondorioz, zerga ordaintzetik salbuetsita gelditu nahi duten lurjabeek otsaila baino lehen aurkeztu behar dute eskaera idatziz udaletxean, bertan lursailaren hedadura eta partzela zenbakiak zeintzuk diren zehaztuz.

Udalak Baso Biziak elkartearekin elkarlanean erabaki du pizgarri fiskal hau onartzea, bertakoak diren zuhaitz landaketak sustatzeko helburuz, “bai gaur egun daudenak baita etorkizunean landatu nahi direnak ere”.

Higiezinaren zerga kalkulatzeko landa luraren balio katastralari %0,99ko tasa ezartzen zaio. Esaterako, 6.000 euroko balio katastrala duen lursail batek 60 euro inguru ordaindu behar izaten ditu HHZ edo IBIagatik.

Errigora saskiak eskatzeko epea zabalik azaroaren 11ra arte

Zapatuan abiatu zen Errigora 2021 kanpaina, *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* izenpean. Hala, azaroaren 11ra bitartean, aukera izango da Nafarroako produktuez osatutako saskiak eskatzeko. Saskiak zuzenean eska daitezke Errigora.eus webgunean (antolakuntzak hobesten duen bidea) edo

paperezko eskuorria beteta, Pil-pileanen, Iratxon edo Arranoan.

Hiru saski mota daude aukeran: saski beltza, Errigoren klasikoa (55€), saski berdea, ekologikoa (65€), eta saski zuria (75€), berezia. Iaz, 16.800 saski saldu zituzten Euskal Herri osoan; horietatik 38, Soraluzen.




Errigoren saski beltza. ERRIGORA.

Hasierako azoka hura

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

ARGAZKIA: PIL-PILEANEN ARTXIBOA.


Aurten, hogeita bost urte beteko ditu Gaztañerre Azokak; mende laurdena, bada zer bait. Lehen aldiz, 1995eko azaroan antolatu zen, Udalaren eta Debemenen ekimenez. Lehen edizioetan baserritarrak izan ziren protagonista nagusi eta ia bakarrak, artisauekin batera. Gerora, dantza, bertsoa, talo eta pintxo postuak eta babajana bera ere gehitu zitzaizkion (bai, babajanaren lehen edizioa Erregetxean bertan egin zen) eta erromeriak. Poliki-poliki plazentziatarren jai egun handienetako bat bihurtu da, handiena ez bada. Hala ere, egun horren muina eta zentzua azokan dago, zehatzago, baserritarren postuetan. Komeni da azokan erostea.





Sudokua

Jose Luis Zumeta gure margolari maitatuenetako bat da, eta hain zuzen horregatik, bere deiturarekin osatu beharko duzu sudokua, alegia Z, U, M, E, T eta A hizkiekin. Gogoratu hizki




bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Hitz gurutzatua

Idatzi irudi txikien izenak dagokien arkatzean. Ondoren, lauki nabarmenduetan egokitu diren hizkiak hartu eta ordenan jarri behean (goitik beherakoa errespetatuz). Ongi eginez gero, Zumeta margolariaren sorterrria azalduko zaizu.



Zeeeeer??

Zumetak koadro asko margotu zituen. Beste margolari oso ezagun baten artelan bat ere izan zuen gogoan, eta artelan horrek eta gertaerak inspiratuta, obra bat sortu zuen. Zein zen margolari ezagun horren artelana? Maripurtzilek badaki, eta esaten ari zaigu, baina konturatzen ote da ez diogula putziak ulertzen?

Lasai, ez da-eta larria. Ezaba itzazu B, F, L U, M eta V guztiak eta hortxe agertuko zaizu.



Hamarrekoa

Aurki itzazu goiko Zumetaren eta honokoaren arteko aldeak. Hamar dira guztira.



Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Etxeko fritokak
Soufflea

Tel.: 943 75 10 02



ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zure genetik horri ikuska, punta puntako teknologekin lan egiten dugu. Cad Cam sistema berrikalku erabilizten dugu.

Elizburu, 3 behea
SOE, ALLUZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe.klinika@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



Etxabe Harategia

- Etxera eramaten dira
- Enkarguak hartzen dira
- Soraluzeko baserrietako produktuetan
- Etxeko irupak eta txistotzak

Etxaburuta 5
Telefonoa: 943 75 23 75



IZKUGUIRRE
Igeltseritza

Erakitin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era gutxietako igeltseritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 299




JUAN MARI
ARRAINDEGIA

Arrain freskoa
Etxera eramateko zerbitzua
Enkarguak hartzen ditugu

MERKATU PLAZA - 943 75 24 48



TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larunbata: 08:30-13:30
Igandak: 08:30-14:30

Gosariak, oga,
jemma, pastilak,
kandakak
Etxera eramateko zerbitzua

Tel.: 943 75 24 43



Jatorria plazara, berrikalku bertara

Batzoki
DENTISTA

eguneko menua
azokharreztat
karta eta raxoak

opiatorekoei eta
hainbat beste
enikango berrikalku

famila eta
lagun arteko
buzkarak

Errezibak: 943 75 20 35




Hortz klinika

Errebal 1
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48.000.590

Katia Gustinio
Odontologoa
K.Z. 48.001.540

27 urteko esperientzia
odontologia, protesiak,
odontopediatria, ortodontia,
implantak, estetika...
Zerbitzu radiologiko onakorra (SD)
ekinartea, urto eta heldu.



KLB6

Kalebarren 6
943 67 76 28
Makina eta material
modulagarria

BSB *Papa Jume*
VERO MODA

ISOLID
BONICH

new balance



Kontulan
aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta, situpernak • Administrazioa, lanak
Tratamendu burokratiko • Lan-urteko aholkularitza
Enpresen kontzultazio/auditazioak • Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. era. 20190 Sorluze
Tel. 943 75 17 80 / Fax 943 75 01 82



Soraluzeko Kooperatiba Elkarte
1904tik abiatik

Arraindegia, janaria,
errapak, etxeko fresnak,
etxera eramateko zerbitzua

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45

Astelehenetik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larunbata: 08:30 - 13:00



MABEL
INEKAPAINDEGIA

Searentzako keratina
tratamendua
Depilazioa
Se-sustrairik gabeko
permanentea
Makillajea
Manikura
erdianurkoma
Solariuma

Errebal 1
Tel.: 943 75 14 89



MGS
Seguros

Veronica Gallarraga
Gertukoak eta segurua

Astelehenetik ostiralera:
10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30

Santa Ana 13
Tel. 945 744 055



MENDIZABAL
okindegia

Ogia • Prentsa • Gosariak

Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbata eta
igandekak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



Carpinteria
MANU
Aroztegia

Ateak
Bostakak
Portakak
Sukaldeak
Tortakak


Manuel Cifuentes
Estazioa 8. barrera • Mug. 636 05 81 25



Almar
SOLARIUM

Itzapaindegia
Estetika
Solariuma

Gabellan 4, behea
Tel.: 943 75 15 13 • 682 51 14 84



KM design

KIKU MONTAJAK

943 76 99 85

karumontajak@ymhoo.es
www.kmdesign.es

Pol. Amilaga 5
BERGARA

- Diseinuetako Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-oinarriak
- Logelak
- Zonak
- Ateak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak



GUTUNAK

Ikastetxeko patioa zabalik

**ANDER ELIZBURU, CRIS JACAS
MATEU ETA IZARO GERRIKAGOITIA
SARASUA**
GURASOAK

Alkate jaunari;

Badira aste batzuk Herri Eskola gaineko parkea erabiltzen hasi garena, gune egokia baita haurrekin egoteko eta hauek aske ibil daitezen bestelako arriskurik gabe. Urriaren 20an, bertara gindoazela atea itxita aurkitu genuen, nahiz eta bertan dagoen kartelak 20:00ak arte zabalik behar lukeela esan.

Udaltzainei deitu eta alkatearen erabakiz parkea itxita egongo zela esan ziguten. Hurrengo deia alkateari. Honen erantzunaren arabera, “bandalismo” arazoak tarteko eta 50000€-ko inbertsioa egin denez bertan, parkea itxita mantenduko da harik eta

bertan zaintza kamerak instalatzen diren arte.

Telefono dei berean bi auzi; i) kamerak instalatzea adin txikikoe erabiliko duten gune batean eta ii) bien bitartean gazte-haurren aisialdirako gune eder bat alkatearen aginduz itxita mantentzea.

I) Gune horretan kamerak jartzea Eskola Kontseiluaren erabakia izan da. Bozkatutakoaren arabera, eskola orduetan kamera horiek itzalita egongo dira eta ordu horietatik kanpo piztuta. Nor da Eskola Kontseilua herritar guztiona den gune batetan kamerak jarri edo ez erabakitzeko?

II) Herrian egiten diren inbertsioak erabiltzeko dira eta ez eskaparate batean giltzapean edukitzeko. Alkatearen erabaki pertsonala izan da, hezkuntza edota haur eta gazte batzordeetatik kanpoko. Noiz arte jarraituko du itxita?

Hau guztia kontutan hartuta hurrengo eskakizunak helarazi nahi dizkiogu alkateari:

- Herri Eskola gaineko gunea zabaltzea eta “gazteen parte hartze prozesuaren ondorioei” kasu eginaz, egun daukan ordutegia handitzea.

- Zaintza kamerak instalatzearen erabakia atzera botatzea. Erabaki hori herritar guztion artean hartzeko eta ez Eskola Kontseiluak.

- Kamerak ezartzea ez da “bandalismoarekin” amaitzeko bidea. Horretarako lanketa pedagogiko sakonago bat egiteko prozesua zabaltzea.

Bestarik gabe adeitasunez.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Eskolako patioa itxita

Eskolako patioaren esparrua zaintzeko kamerak ipini bitartean, Udalak itxi egin du eskolako patioa arratsaldeetan, bandalismoa saihesteko.



IÑIGO OÑEDERRA

"Ixtea oso txarto iruditzen zait; bandalismoa, seguru aski, gauetan egongo da, 20:00etatik aurrera, ez du logikarik 20:00ak arte itxita egoteak. Kameren aldekoa ez naiz, beharrezkoa ikusten bada ipintzea, ba hor ez naiz sartuko, baina ez naiz kamerak ipintzearen aldeko".



GEMA TELLERIA ZABALA

"Kamerena ez dut gustuko, horrek dakarren kontrolarengatik. Baina, kontrolik ez badago ikusten da bandalismoa dagoela, beraz, ez dakit. Gaia etxeetan landu beharko litzateke. Patioa, berriz, zabalik lagako nuke. Bandalismoa egin nahi duenak patiora nahi duenean sartuko da".



LAURA FERNANDEZ PLATA

"Kamerak ipintzea ondo iruditzen zait. Horrekin ez da bandalismoa erradikatuko, baina halakoak egiten dutenak apur bat kontrolatzeko bidea da. Bien bitartean patioa ixtea... Ume asko ibiltzen da hor eta akaso beste irtenbide bat ipini beharko lukete".



PABLO MATEO

"Patioa publikoa bada, zabalik egon beharko litzateke. Eta leku publikoa izanda, kamerak ipin badaitezke, ba ipin ditzatela. Bandalismoa, berriz, ezin da saihestu, gurasoen, inguruko en eta guztion heziketaren barne dago. Bitartean... aguantatu egin behar!"

PUNTUA



GARAZI CATALAN ARENAZA

Normaltasuna?

Badira hilabete batzuk berrogeialdia amaitu zela, badira hilabete batzuk normaltasuna itzultzen ari dela...edo ez? Pandemiaren iraupena motza izango zela uste genuen eta hala uste ez zutenek ez zuten hainbeste luzatzerik espero. COVID-19a agertu zenetik, normaltasunari buruz hainbat teoria entzun ditugu, batzuk ideia batzuekin konbentzituta, beste batzuk ez hainbeste. Normaltasuna, hitz bat, baina hainbat esanahi eman dizkiogu azken hilabeteotan. Askok diote bizipen hauek gizartea aldatuko dutela, jarrera aldatuko dugula. Ez dakit horrela izango den, baina badakit etorkizunari buruzko sasijakintsu bilakatu garela. Agian hori da normaltasunera itzultzeko modua. Normaltasuna itxaropenarekin lotuko nuke; gogoko dut gertukoekin pandemia aurreko egoeraren itxura duen eszenatokieta itzultzea, gogoko dut berriz muxuak eta besarkadak jaso eta ematea, baina beti egongo da kontrolatuko ez dugun hori. Bai, beldurra ematen du, baina hau da gure normaltasuna; dena gure kontrolpean ez izateak ez digu aurrera egiteko aukera kenduko. Ez dakit non bukatuko dugun, baina, beste behin, normaltasuna aurkitu beharko dugu, eta tira, hortik ere zerbait aterako dugu. Bitartean goza dezagun daukagunaz.



Zezenak eta zezenekin jolastea pasio

Zezenzale amorratua da Ibai Kortabarria (Soraluze, 1995). Urte eta erdian pandemiak bere zaletasunaz gozatzea galarazi ondoren, aurtan, dagoeneko "beteta" dauka urte amaierara bitarteko egutegia. Nafarroara, Valentziara eta Madrilera joango da, besteak beste. Umetatik du zezenzaletasuna errotuta.

Testua: Ubane Madera Zangitu.
Argazkiak: Lagatakoak.

Herririk herri, jairik jai ibiltzen da Ibai Kortabarria ahal duen guztietan. Ez, ordea, parranda egiteko asmoarekin, baizik eta zezenetan ibiltzea pasio duelako. Urrian, Lodosako sokamuturrean eta Tafallako entzierroan izan da, azaroan Valentziako Chiva herriko sokamuturrera doa Bergarako Zezenak elkartekoekin asteburupasa, eta, abenduan, berriz, Madrilera, Estatuko hainbat zezenzalek urtero egiten duten topaketara. "Whatsapp talde bat dugu Estatuko lagun talde batena -Madril, Valentzia, Extremadura, Euskadi, Nafarroa...-. Zezenetan, gehienetan, pertsona berak ibiltzen gara hainbat herritan eta poliki-poliki harremana egiten goaz. Ordu eta momentu txar asko pasatzen dugu elkarrekin eta zenbat eta laguntasun edo harreman hobea izan, zerbait pasatzen zaizun egunean, jendea gertu duzu, laguntzeko prest. Dena den, egia esan, afizio honek duen politena bata bestearekiko dugun elkartasuna edo laguntzeko grina da, inori ezer txarrik ez pasatzeko, ez guri ezta animalari ere. Jendea beti dago laguntzeko prest", azaldu du.

Arriskua beti

Ukaezina baita zezenekin "jolastea" arriskutsua dela, Kortabarriak berak onartzen du hori horrela dela: "Zezenen ibilbidean sartzen zaren momentutik bertatik da arriskutsua. Zezena ibili ahal den lekuan baldin bazaude, arriskuan zaude. Arriskua gehitu eta gutxitu



Ibai Kortabarria zezenaren arreta erakartzen herriko jaietan, 2017an.

egiten da distantziaren arabera. Gu bezala, asko gerturatuz gero, arrisku handiagoa duzu, urrintxo dabilenak gutxiago. Baina arriskua beti dago".

Konortea galduta, ospitalera

Soraluzetarrak zuzen-zuzenean pairatu ditu arrisku horren ondorioak, behin baino gehiagotan, gainera. Larrienak orain dela sei urte izan ziren. Urte berean, bi aldiz harrapatu zuen zezenak, bata Deban eta bestea Bergaran, lurrean labandu ondoren, eta, ospitalean bukatu zuen konorte barik. "Dena ondo irten zen, baina...", dio.

Larritasun gutxiagorekin, baina sustoak ere ugari izan ditu: "Ia zezenetan ibiltzen zaren bakoitzean. Handiak, txikiak... denetik". Eta beldurra ere pasatu du, beldurra baino, errespetua, bere hitzetan: "Entziero batean, adibidez, beldurra pasatzen duzu ez dakizulako zelan etorriko diren animaliak, banaka, denak batera, denak zuzen... Beldurra baino gehiago errespetua da. Egiten den jai horrekiko eta, hein handienez, animaliarekiko. Azkenean, hori ez badago, halako jairik ez zen egongo".

Kortabariak onartu du, baita ere, zezenzaleen gertukoendako gogorra dela zaletasun hori, sufritu egiten dutelako: "Etxean, askotan, gehiegi sufritzen dute. Beti saiatzen gara ez sufriarazten, baina animalia horrekin ez dakizu ze gertatuko den., Etxe askotan sustoak tokatzen dira, baina, oraingoan, ez dugu izan ezer larririk".



Adrenalina purua

Kolpeak, beldurrak eta etzekoen sufrimendua hortxe izan arren, erre ke erre segitzen du soraluzetarrak zezenekin jolasean. "Adrenalina erretzeko aukera" ematen dio zezenekiko zaletasun horrek eta "barru-barruan" du errotuta. "Barrutik datorren afizioak eta gogoak ez dit lagatzen zezenekin ibiltzeari lagatzen. Sustoekin, asko aldatzen du zezenekin zaudenean duzun jarrera eta animaliarengana zenbateraino gerturatzen zaren baldintzatzen du. Segurtasun ezak sartzen zaizkizu berriro konfiantza hartu arte, batzuetan kostatzen da, batzuei gehiago, beste batzuei gutxiago. Askotan nire buruhausteak eta nire buruko minak izaten ditut, baina afizioa barrutik irtendakoa bada eta hori maite baduzu, lehenago edo beranduago bueltatuko zara. Nire kasuan, nire afizioa animaliak eta zezenak dira, nire adrenalina horrekin botatzen dut. Kotxeak gustatzen zaizkiona kotxe-karreretan ibiliko da. Bakoitzak bere zaletasunak dauzka eta saiatzen da gustatzen zaiona egiten. Pandemiarik ez zegoenean ahal zen herri guztietara joaten



Kortabarria zezenari izkin egiten, 2017ko jaietan.

Zezenak mendian.

ginen zezenetan ibiltzera, goizean, eguerdian, arratsaldean, gauean... ahal zen guztietan".

Ganadutegiak ere afizioz

Pandemiaren gaia aterata, Kortabariak aitortu du luze egin zaiola azken urte eta erdia, ezin izan delako zezenetan ibili aurtengo ikasturte hasierara arte. Baina batez ere, ganadutegien grina goraiatu du, "denek demaseko lana" egin baitute ganadutegiak eusten. Kortabariak bezala, Euskal Herriko ganadutegiek, behintzat, afizioz eusten baitiote zezenak hazteari, soldata beste jarduera batzuetatik aterata. "Nahikoa meritu dute horri guztiari eusten, denbora guzti honetan dirurik eman ez duenean. Laguntzak lortu dituztenek hobeto, noski. Izan ere, Euskal Herrian ez da inor bizi ganadutegitik, ez Bergarakoa, ez Mutrikukoa, ez Itziarkoa... Ganadutegi horietako jabe bakoitzak beste lanbide bat

dauka etxera soldata eramateko, kamioilari, garraiolari, igeltsero... dira".

Bergarako Zezenakeko kide

Kortabarria bera ere bada ganadutegi horietako bateko kide: Bergarako Zezenak. Kide izateak esan nahi du ganadutegi horretan laguntzen jarduten duela soraluzetarrak. Kontatu duenez, 2011az geroztik dihardu eta denetik egiten du: "2011n Bergarako Zezenak ganadutegiko Iñigo Almortza ezagutu nuen eta behin laguntzera joateko eskatu zidan ikusten zuelako horretarako gauza banintzela. Bazekien bizitza guztia animalia artean ibilitakoa nintzela eta horregatik, mundu guztiak ez daki zezenekin ibiltzen. 2011tik hona, poliki-poliki joan gara harremana estutzen, egunero bertan egoteraino. Zezenei jaten eman, albaitaria badator lagundu, jaietara doazenean taldetxo bat horretan ibiltzen gara. Sei bat izango gara, lau bat konstateagoak eta besteak maiztasun txikiagoarekin. Iñigo Almortzari eta Bergarako Zezenak taldeko kide askori esker ikasi ditut gauza asko eta, orain, gauza asko eurek erakutsita eta eurek emandako konfiantzari esker egiten ditut".

Euskal Zezenzaleen Elkarteak kidea ere bada soraluzetarra eta errektadore ere ibiltzen da.

Etorkizunean, auskalo

Ildo beretik, afizioaz aparte, Kortabarriari berari ere ofizioa zezenekin lotutakoa izatea pasatu izan zaio burutik, berez, Desatascos Laster enpresan lan egiten baitu gaur egun. Baina gaitza ikusten du ganadutegi bat sortu eta hortik bizitzea, lan handia delako, egunerokotasuna eskatzen duelako, baita lantalde oso bat ondoan izatea ere, negozioaren balizko errentagarritasunaz aparte. Hala ere, etorkizuna libre lagatzen du: "Auskako! Igual bai, igual ez, ez dakit. Baina hemendik aurrera, nire buruan, behintzat, baserrira joatea eta etxean animalia batzuk izatea beti dabil bueltaka; ze animalia izango diren? Ikusiko dugu, burutuko dugun edo ez ere ikusiko dugu".

Hobe lagunekin

Jakina, bien bitartean, zezenekin "jolasean" segituko du Ibai Kortabarriak. Aukeran, hobe lagunekin, herrikide duen Gorka Santamariarekin, adibidez edo Bergarako Zezenak ganadutegikoekin, "zerbait gertatzen bada ere, lagunduta zoazelako eta noski, gastuak gutxitzeko, pentsatu, autoan hiru ordu egin behar badituzu edo Valentziara joateko 7 ordu... Ni behintzat, urrutirago ez naiz joan".



Ibai Kortabarria Bergarako Zezenak elkarteko hainbat lagunekin, tartean, Iñigo Almortza ugazabarekin.

**2011TIK BERGARAKO
ZEZENAK ELKARTEKO
KIDE DA, BAITA EUSKAL
ZEZENZALEEN
ELKARTEKO KIDE ERE**

**KORTABARRIAK GAITZA
IKUSTEN DU
GANADUTEGI BAT
SORTU ETA HORTIK
BIZITZEA**



Ibai Kortabarria sanferminetako entziera batean.

Kortabarria zezena toreatzen, 2019ko jaietan.

ondoriorik gabe".

Herriari zor

Ibai Kortabarriak Soralezuri zor dio zezenekiko zaletasun indartsu hori, "txiki-txikitatik" izan duena. Ibili ere, estrainekoz herrian ibili zen zezenetan: "Txikitatik beti ezagutu dut zezena San Andres auzoan, Ezosi auzoan, San Martzialen ere bai, kalean.... Baserrian egun guztia animali artean ibiltzeak txarrrik ez dit egin eta asko lagundu dit animalia horren inguruan asko ezagutzeko".

Jaietako zezena gustuko

Bestalde, zezenak horrenbeste maite dituen pertsona bati zezenketei buruz ere galdetu behar; galdetu zaio baita ere non

Hala ere, gertuko zezen jaietan ibiltzea du gustukoan, batik bat, herriko jaietan, horixe da berarendako urteko hitzordurik inportanteena: "Herrian delako. Herriko jende askok zoriontzen gaitu zezenetan ibiltzen garenok, guk dugun afizio edo balentria hori jende asko apreziatu eta eskertu egiten du. Bergaran ibiltzea ere gustatzen zait. Chivan... Herri asko daude".

Sanferminetakoa desberdina

Horien artean, Iruñea ere badago, noski, Sanferminetara ere joaten baita Kortabarria, nahiz eta hango entziera besteekiko desberdina dela onartu: "Sanferminetakoa momentu oso bizkorra da eta ez dago zure esku, ezta animalien esku ere. Inguruko jendearen esku daude gauza asko eta horrek deskonfiantza sortzen dizu, baina aldi berean indarra ematen dizu esateko joan egin behar naiz, probatu egin behar dut... eta azkenean gustatu egiten zaizu eta behin ondo ibili bazara pentsatzen duzu, berriro ere joango naiz ea ondo nabilen eta txarto banabil, ba ea hobetzen dudan. Azkenean, beti dago aitzakiaren bat joateko. Egia esan, Sanferminetan ere sustotxoren bat izanda daukagu, baina

dagoen aisialdiaren eta tratu txarren artean muga. Kortabarrak aitortu du berak kaleko zezena (jaietakoa) duela "benetan" gustuko, baina gaineratu du zezenketak ez direla bere disgustukoak. Halaber, uste du tratu txarra dagoela "plazan dabilenaren eskura" eta ez du partekatzen zezenketekiko egiten den irakurketa. "Nik beti honakoa esaten dut: esaten dute hiltzen garenean animalia baten berraragiztatzen garela, nik beti esan dut animalia bat izatekotan, zezena nahiko nukeela izan, Euskal Herrian erabiltzen diren zezen horietako bat. Barru-barrutik ikusi dut euren bizitza. Egunero bizi izan naiz euren ondoan. Badakit zelan bizi diren. Esaten dute beti, zezenak jo egiten du eta harrapatu, baina zezenak bere puntu onak ere baditu. Nire kasuan, adibidez, animalia horrekiko ezjakintasun horrek erakarri egiten nau, izan ere, zaila da jakitea nondik aterako den, baita mendian dagoenean ere. Zezenkumeren bat baldin badu edo zerbaitengatik erasotua sentitzen bada, zezenak eraso egingo du, baita mendian ere. Baina egunero eurekin baldin bazaude ezagutzen dituzu, egunero zezenekin dabilenak badaki noiz eta nora arte gerturatu daitekeen".

Hemengoa, Betizua

Ildo beretik, gogora ekarri du zenbait zezen arrazek bizirauten dutela jaietan-eta ibiltzen direlako. Euskal Herriko kasuan, Betizu arraza aipatu du. "Urte asko dira hemengo arraza dagoena, Betizua. Gainera, igarri egiten zaio urte asko dituen arraza dela. Iparralde-Pirinio partera eta beherantz, berriz, gehiago sartzen da Casta Navarra. Mota horretako zezen arrazak mantentzeko bidea hori da. Izan ere, behi horiek ez dute okela askorik izaten. Gehiago hazten dira atleta moduan. Azken batean, korrika egiteko eta forman egoteko ezin da oso handia izan, dieta ere asko zaintzen zaie... "

Eskerrona

Elkarrizketa bukatu aurretik, eskerron mezua helarazi nahi du soraluzetar zezenzaleak: "Eskerrak eman Bergarako Zezenak taldeko kide guztiei, batez ere Iñigo Almortzari eta Blas Cruzi, egunero eta momentu askotan ondoan egotearren, afizio honen parterik handiena erakustearren eta afizio hau bizitzeko aukera ematearren, baita animalia hau ezagutzeko aukera ematearren ere".



Ibai Kortabarría zezena lotzen, kamioian.

**"ANIMALIA BAT
IZATEKOTAN, ZEZEN
NAHIKO NUKE IZAN,
EGUNERO BIZI IZAN
NAIZ EUREN ONDOAN"**

**"ESKERRAK IÑIGO
ALMORTZARI ETA BLAS
CRUZI AFIZIO HONEN
PARTERIK HANDIENA
ERAKUSTEARREN"**

Murua eta Balerdi munduko txapelkun

Murua eta Balerdi uztailean hasi ziren munduko txapelketa prestatzen, beste pilotari bikote batekin batera

Pozik, oso pozik daude Sorluzeko Pilota Elkarteko jokalariek Ander Murua (Arrasate) eta Manex Balerdi (Antzuola) irabazi berri duten munduko txapelkun tituluarekin.

Urriaren 23ko asteburuan, eskuz binakako finalean lortu zuen garaipena Sorluzeko taldeko pilotariak kide dituen Espainiako selekzioak, Segovian eta Valladoliden, 23 urtez azpikoen mailan. Bietatik, Muruak bakarrik izan zuen finala jokatzeko aukera;



Balerdi, Atxotegi eta Murua Aranen.

Balerdik, berriz, finalaurrekoa jokatu zuen. Kontuak kontu, datozen lau urteotan Sorluzeko taldekideena da munduko txapelkun titulua.

"Aitorren aholkuek on egiten digute"

Txapelketari dagokionez, kontatu dutenez, finalera arte maila nahiko baxua izan da: "Partidak nahiko errazak izan dira finala izan ezik; paletan eta zestan maila altuagoa zegoen, eskuz nahiko baxua". Hala ere, irabazi izanak "ilusioa" egin die: "Beste txapelketa bat irabaztea bezala da". Sorluzen entrenatzen dutenez, entrenatzaileari buruz galdetuta, berriz, esan dute on egiten dietela Aitor Atxotegiren aholkuek: "Asko daki, batez ere asko laguntzen du entrenamenduetan eta bere aholkuak betetzen saiatzen gara, horrek on egiten digu".

Euskal selekziora deitu dituzte

Naia Aranak eta Irati Hernandedezek abenduko zubian jokatu dute euskal selekzioarekin, Bilbon, Estatuko beste selekzioen kontra

Marras Irristaketa Taldeko Naia Arana eta Irati Hernandez jokalariek hasi dira euskal selekzioarekin entrenatzen, Estatuko bestelako selekzioen kontra jokatu duten txapelketari begira. 14 urteko bi hockey jokalariek "ezustean" harrapatu zituen euskal selekzioaren deiak, baina "pozik" onartu eta buru-belarri ari dira lanean. Selekzioarekin hurrengo bi entrenamenduak azaroan dituzte, domeketan.



Hernandez eta Arana partida batean.

Txapelketari dagokionez, berriz, abenduko zubian hiruzpalau partida jokatu dituzte Bilbon. Bi gazteek diotenez, "maila altua dago" euskal selekzioan eta selekzioarekin jokatea "eurendako pizgarria" dela diote. Bestalde, "eskerrak" eman nahi dizkiote Sorluzeko Marras taldeari.

Talde guztiak abian

Marras Irristaketa Taldeari dagokionez, berriz, hiru mailatako taldeak irailean hasi zuten ikasturtea, lehian ere ari dira. Azaroaren 7an, lagunarteko partidak jokatu dituzte kiroldegiko frontoian, 10:00etan benjaminek, 11:00etan infantilek eta 12:00etan alebinek, Erriberabeitiko Dragons taldearen kontra.



Muzak taldea. JUAN FERNANDEZ.

bozketa bitartez. Botoa emateko epea zabalik da, azaroaren 4ra bitartean.

Lehen diskoa

Zazpi kantu ditu Muzak taldearen lehen diskoak. *Programaturik* du izenburua eta rock alternatibo eta modernoa lantzen dute. Joanes Iñurrietak (Soraluze, 1991) kontatu duenez, hiru lagunek elkarrekin egin duten lehen lana da eta “oso-oso gustura” geratu dira emaitzarekin. Eñaut Gaztainen - Ezpalak eta Grises taldeetako gitarra-jolearen-Zestoako estudioan grabatu eta Gaztainek berak nahastu du diskoa.

Entzungai plataformetan

Dagoeneko diskoa entzungai plataforma digitaletan eta oraingoz diskoa fisikoki ateratzeko asmorik ez duten arren, ahalik eta entzule gehienengana ailegatu nahi dute. Horregatik aurkeztu dira Gazteako lehiaketara eta Durangoko Azokako Ahotseneara, “baina Ahotsenean esan digute ez dagoela lekurik”.

Muzak Gaztea maketa lehiaketan

Joanes Iñurrieta kide duen Muzak rock taldea Gazteako maketa lehiaketako 20 finalisten artean dago.

Joanes Iñurrietak (gitarra eta ahotsa), Ruben Irigoyen elgoibartarrak (bateria) eta Aitor Sagarmendi mutrikuarrak (baxua) osatzen dute Muzak eta *Programaturik* lehen diskoko

hiru kantu aurkeztu dituzte lehiaketara. Lehiaketako 20 finalistetatik lau pasako dira hurrengo fasera; hiru epaimahaiak aukeratuko ditu eta laugarrena herritarrek,

Oyonarteren erakusketa Orekan

Azaroaren 5ean hasi eta 26ra bitarte, Manolo Oyornarte margolari madrildarraren *Pensando lo impensable* izeneko erakusketa izango da ikusgai Oreka Art galerian. Oyornarte, bere obra Zaragozan erakutsi berritan dator Soraluzera, margolan koloretsu eta deigarri sorta batekin.





Watermelon Slim estatubatuarra. ERRABAL.



Janis Joplinen inguruko filma. ERRABAL.

Nazioarteko bluesik onena

Azaroaren 19tik 28ra bitartean, Blues Hotsak jaialdia egingo da Sorluzen. AEBtako, Britainia Handiko, Espainiako, Kataluniako eta Euskal Herriko musikariek joko dute.

Blues Hotsak jaialdiaren hirugarren edizioa izango da aurtengoa eta Errabal kultura elkarteko Ubane Uzin antolatzailearen esanetan, "blues jaialdia kontsolidatu egin da eta penintsulako blues jaialdi nagusien agendan sartzea lortu dugu. Horri esker, orain atzeritik biran datozen musikariak eurak dira etorri nahi dutenak".

Musikari handiak

Watermelon Slime da jaialdiko izen handi horietako bat. "Ibilbide luzeko musikaria da, oso edadetu. Vietnamgo gerran ibilia, gerraren aurkako beteranoen kide ere izan zen eta bere bizitza artistikoan

blues munduko musikaririk handienekin jo du".

Ondoren datozen beste lau taldeak ere ez dira nolana hikoak: Izo Fitzroy emakume ingeles ileoria "indar handikoa"; Koko Yein, bere azken diskoa aurkezteko biran dabil; *Eunice*, Nina Simoneri eskainitako emanaldia da, Errabal elkartearen enkarguz ondua; eta Niko Etxart, "euskal eszenako izen handia, euskarari presentzia ematen diona". Hala, maila artistikoarekin batera, genero aldetik lortu den "oreka polita" ere azpimarratu nahi izan du Ubane, nabarmenduz taldeburuetako hiru emakumezkoak eta beste bi gizonezkoak izango direla.

Bestalde, aipagarria da aurtren ere herriko musika taldeek izango dutela jotzeko aukera, Musika Eskolarekin batera antolatu den emanaldian.

Erakusketa eta filma

Kontzertuez gain, beste diziplina batzuk ere izango dira jaialdian. Batetik, *Bluesaren zuzeneko mundua* izeneko erakusketa izango da ikusgai, Alex Rodriguezen argazkiekin osatua. Bestetik, Janis Joplinen bizitzari buruzko *Little girl blue* filma proiektatuko da jaialdiak iraungo duen egunetan.

Sarrerak salgai

Kontzertuetarako sarrerak azaroaren 1etik aurrera ipiniko dituzte salgai, oraingoz, Iratxo gozo-dendan bakarrik, 10 eta 15 eurotan. Ez dute bazterten aurrerago online ere eskaintzea.

"BLUES HOTSAK JAIALDIAK LORTU DU PENINTSULAKO BLUES JAIALDI NAGUSIEN AGENDAN SARTZEA"

Programa

MUSIKA Wartermelon Slim Blues Band

Ospetsua da blues munduan: kazetari, historialari eta kamioilaria dugu aldi berean, bizitza ikuspegi satirikoaz aurkezten digu, politikari buruz eta gerraren aurka kantatuz...
Azaroak 19, 20:00etan Herriko Antzokian.

MUSIKA Izo Fitzroy banda



Soul eta Blues munduan ondo trebatutako emakume britainarra. Soul garaikidearen ahots nabarmenenetako bat dugu Izo Fitzroy. Gospelaren barruan hazia eta Motown zein rock klasikoaren soinueta babestua.
Azaroak 20, 20:00etan Herriko Antzokian.

MUSIKA Eunice



A Beloved Tribute to Nina Simone's Music. Nina Simone

artista eta aktibista ospetsuak Eunice zuen lehen izena. Grezieratik dator eta "garaipena lortzen duena" esan nahi du. Aukeratutako erreperitorio honetan, bere ibilbide aberatsean ukitu zituen estilo eta genero guztiak batzen dira arrakasta handiko zenbait abestiren ondoan.
Azaroak 21, 20:00etan Herriko Antzokian.

FILMA Janis Joplin: Little girl blue

Janis Joplin abeslariari buruzko dokumental musikala. Lanak musika asko du, baina musika hori abestu zuen emakumea nabarmen du, maitasunez, sakontasunez eta leuntasunik gabe.
Azaroak 25, 21:00etan Herriko Antzokian.

MUSIKA Niko Etxart & Hapa-Hapa



Urte guztietako jakituria eta erreperitorio anitz distiratsu baten jabe, bere beste sustrai nagusiaren ikerkuntza eta gozatzeko hutsean bermatzen du bere beste fazeta, jaialdi honetan izango den "bluesman"-a hain zuzen ere. Niko Etxart (ber)aurkitzeko luxuzko aukera.

Azaroak 26, 20:00etan Herriko Antzokian.

MUSIKA Koko-jean & The Tonics



Musikalki desberdinak diren lau munduren onentsuena proposatzen digu soul, erritmo eta groovez betetako eztanda bakarrean. Bartzelonan bizi den abeslari afro-katalan honek hankaz gora jarri zuen Bartzelonako soul eta rythm & blues eszena duela urte batzuk, The Tonics taldearekin abentura berri bila abiatuta.
Azaroak 27, 20:00etan Herriko Antzokian.

MUSIKA Musika Eskolako Konboak

Soraluzeko Musika Eskolako ikasle eta irakasleek osatutako taldeak euren trebetasunak erakutsiz. Gertuko gozamena.
Azaroak 28, 13:00etan Herriko Antzokian.

ERAKUSKETA Bluesaren zuzeneko mundua

Alex Rodriguez Cruz argazkilariak zuzeneko blues emanaldietan ateratako argazkiak.
Azaroaren 19tik 28ra, erakusketa gelan.



Urriko gertaerak gogoan

1996tik, Pil-pilean herri komunikabideak plazentziatarren historiaren kronika bizia jaso du milaka argazki, testu eta bideo bitartez. Oraingoan, urriko gertaeren argazkiak bilatu ditugu artxiboan eta ondorengo zazpiak hautatu ditugu. Guraso eta ikasleen argazkiak, abadearen despedidako afaria, Olako zubia egiteko lanak, perretxiku bilketa, gaztetxea berritzeko lanak... Istorio txikiok osatzen dute gure herriaren historia handia. Argazkiak: **Pil-pileanen artxiboa**. Testua: **Egoitz Unamuno**.

KOMUNEN ESKE (2005)

2005eko urriaren 5ean, Plaentxi herri ikastetxea berritu berritan, berrehunen bat ikaslek, gurasok eta irakaslek mobilizazio jendetsua egin zuten Plaza Berrian “Eskola berria bai, komunak ere bai” lemapean. Helburua zen ikastetxeko 2. pisuan matxuratuta zeuden komunen egoera salatzea eta Jaurlearitzako hezkuntza sailari herritzeko eskatzea. Ikastetxekoak konpondu zituzten, komun publikoena beste istorio bat da.



ABADEAREN DESPEDIDAKO AFARIA (2002)

2002ko urrian, herriko kristau komunitateak Jokin Mitxelena herriko abadea agurtzeko afari jendetsua antolatu zuen Ezoziko Armendi jatetxean. Bertan, 60 lagunetik gora batu ziren, 6 urtez herriko abade izan zena agurtzeko. Handik gutxira, Luis Gomezek hartu zuen Mitxelenaren lekua. Argazkian, gaur egun gure artean ez dauden plazentziatar asko ageri dira.



**UMEENDAKO JOLASAK
FRONTOIAN (2002)**

Urte hartan, eskolaz kanpo Frontoian antolatu zituzten umeendako jolasetan ateratako argazkia da. Bertan, ume eta guraso kuadrilla ageri da, edo, zehatzago esateko, ume eta ama kuadrilla. Bazterreko gizonezkoa da salbuespena. Mugikorrik eta internetik gabeko garaiak ziren. Orduetik gauza asko aldatu dira, baina umeen zaintzaren ardura ere bai? Atera bitza bakoitzak bere argazkiak ikastetxeko sarreran, konparatzeko.

PIL-PILEANEN ARTXIBOTIK

UGARAXO (2003)

Plaentxi Herri Ikastetxeak izan zuen bere pertsonaia: Ugaraxo. Besteak beste, ikastetxeko giroa animatzea eta haurren artean hainbat balore transmititzea zuen helburu, tartean, euskalzaletasuna. Hain zuzen, Pil-pileanek eta ikastetxeak Ugaraxo izenarekin kaleratu zuten hainbat urtez umeei eskainitako gehigarri bat, albisteak, iritziak eta lehiaketak jasotzen zituenena. Argazki hau gehigarri hartan publikatu zen.



OLAKO ZUBIA (2002)

2002an hasi ziren Olako zubi berria eraikitzeko lanak. Aurrena, Albasa tailerra eta Olako Osiña eraitsi ziren eta zubia eraiki zuten gero (lehen gutxi genituen eta). Handik gutxira, egin zuten herriaren gainaldeko errepidea. Lanok, Jaurlaritzak desindustrializatutako herriak biziberritzeko bideratu zuen Izartu egitasmoaren baitan bideratu ziren. Gaur egun ere, badago zerbaiten premia.



ATXA MEMORIALA (2003)

1982an antolatu zuten lehen aldiz Jesus Atxa korrikalariaren omenezko lasterketa herriaren; Atxa Memoriala, eta 22 urtean zehar, herriko eta kanpoko adin guztietako ehunka korrikalari batu zituen. 2003an antolatu zuten azkenengo aldiz. Argazkian, Alejandro Rodriguez, Ramon Argarate, Jose Luis Mendizabal 'Azalia' eta Jose Antonio Atxotegi ageri dira, Zigor Esnaolari saria ematen.



PERRETXIKOTAN (2006)

2006ko urriko egun batean, Iñaki, Jose Antonio, Aitor eta Andoni perretxikotan joan ziren Nafarroako Ultzamara, Pil-pileaneko kazetaria ondoan zutela. 'Egun bat perretxikotan' kronika publikatu zen gero aldizkariaren 142. alean. Argazkian ageri den moduan, goiz oparoa izan zen eta lau plazentziatarrek sekulako boletus pila batu zuten. Aaaai, haiek bai garaiak haiek... Orduan libre zen nahi beste perretxiko batzea. Gaur egun, horrelako kargamentuarekin harrapatuko balituzte nafarrek...



GAZTETXEA KONPONTZEN (2011)

Duela 11 urte, orduko Gazte Asanbladako kideek Gaztetxearen sabaia konpondu zuten. Sabai faltua bota ostean, garbitu eta pintatu egin zuten eta argiteria berria ipini. Gero, hormak ere berritu zituzten, mural berriak margotuta. Orduko hartan, izerdi pixkat bota zuen batek baino gehiagok. Fatxada berritzeko dago oraindik, Gaztetxea indarberritu eta koloreztatuko duen ekimenaren zain...


ZORION AGURRAK



Alaia Martínez Fariñas
Urriaren 31an 3 urte. Zorionak txikixa! Jarraitxu gustora-gustora haunditzen!! Patxo haundi bat etxeko guztion partez!




Sara Muñoz Iñurrieta
Zorionak etxeko alaitxasunari!!!! Asko maitxe Zaitxugu printzeza. Etxekuen partez eta bereziki Julen eta Zaloaren partez!!!



Ekaitz
Azaroaren 6an 6 urte. Zorionak Ekaitz! Ondo pasau zure eguna! Asko maitxe zaitxugu! 1000 patxo aitxitxa, amama, tia Alazne eta familixian partez.



Iratxe eta Ekain
Urriaren 24an 32 urte eta urriaren 19an 9 urte. Muxu haundi bat etxekuen partez!



Malen eta Tia Leire
Urriaren 29an, 6 eta 33 urte. Zorionak eta muxuak. Etxeko danen partez

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu:

Internet

Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@pilpilean.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Margarita Albeniz Idigoras
Ramon Sagasta Rubio
Lorenzo Astigarraga Basterretxea
Jose Mateo Oruesagasti Txurruka

Jaiotakoak

Ez dago jaiotakorik

ARRANO
taberna
Etxeri eta gazteri
etxeko pintxoak
Etxaburueta 6

Criado
fruitategia Urdaiztegia
Enkarguak Whatsapppe
Etxerako zerbitzua
Berrikok & delicatessen
Astelehenetik ostirabera:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbata: 09:00-13:00
629 958 536

Txoko
Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgesak,
ogitartekoak,
radiak,
pizzaak,
gogorak...
Enkarguak egunero dira
Tel. 943 75 17 89

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA
aruntza
dekoraziorikoa
industriala
Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

FOGASLER
ITURGINTZA
943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

Belarrak
lana eta
belarrenda
Elkagai
ekologikoak
Etxerako zerbitzua
Santia Ana 22
943 75 30 11

Bidelagun euskaltzaletasunean



ESKELAK

ESKELA



Luis Maria Heriz Garmendia “Koldo”

2013ko azaroaren 7an hil zen, 71 urterekin.



“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakienak ikasten ez duelako dakienak hitzegiten ez duelako baizik”



Sendia.

I. URTEURRENA

Alberto Pombar Feijo

2020ko azaroaren 1ean hil zen, 46 urte zituela.



Bihotz oneko mutila, horregatik estimatzen zuten hainbeste ezagutzen zutenek. Bedeinkatua izan bedi bere memoria. Maite zaitugun zure familiak, beti eramango zaitugu gure bihotzean.

Sendia.



ESKELAK JARTZEKO: 943 75 13 04
edo eskelak@pilpilean.eus

Hil diren herritarren eskelak, oroigarriak eta urteurrenak argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak:

- ▶ Arrunta: 75 € / Bazkideek 60 €
- ▶ Handia: 120 € / Bazkideek 96 €

Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Soraluzen.

BETI ZUREKIN

GIPUZKOA

943 903 450

Bertoko Igoailuok-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. Solbuespenik gabe.



bertako
www.bertoko.eus



XXV. Gaztañerre azoka

Azaroak 13, zapatua

10:00 Azokaren irekiera: baserriko produktuak, artisauen lanak eta ganadu erakusketa

11:15 Trikitilarien kalejira

12:00 Ekitaldia azokan: dantza saioa, omenaldia, sari banaketa eta bertsolariak

15:00 Herri-babajana karpan (txartelak Iratxon)

19:00 Erromeria Fan&Go taldearekin karpan

23:00 DJ Revolutionary Love
Gaztetxean



SORALUZEROKO
UDALA



PIL-PILEAN



Soraluzeko Trikitulariak



SORALUZEROKO
DANTZAK



DEBEMEN